

GHARDAIA

Arrate EGAÑA

Euskaldunei Marruekos aldera joatea gustatzen zaigula ematen du, behintzat, Ala-ren lurrean topo egiten dugu askotan; ez dakit orain ordea, Golkoko asuntorekin, ea hain ondo jasoko gaituzten.

Bi urte pasa dira Argeliara joan nintzenetik oasiak ezagutze-
ra. Basamortuko erruten bitartez, paisaia paregabekoak ikusi eta munduko datil hobereak jan nituen. Moruek Ramadan-a egiten ari ziren; horregatik, gizonezkoak gauez ateratzen ziren jatera, edatera, eta abar. Emakumeak etxean gelditzen zirelarik bitartean.

Goiz eder batean, autobus kiskalgarritik jetsi ginen hiritxo bat ikusteko. Ghardaiak, bere harresi tartean gordeta, bitxi bat zirudien, palmerak edonon eta lau puntu kardinaletan zehar, desertua.

Ghardaiak beste izen bat zeukan, "Hiri Debekatua", hain zuzen, eta herrira sartuz gero, errez ulertu genuen han geundena: ezin zen erre, argazkiak atera, nobiari eskua eman eta, askoz gutxiago, muxuka hasi. Prozesio txiki bat eratu genuen hango gidari baten atzean. Kale harritatuak, alaiak, etxeak garbiak, mimatuak agertzen zitzaizkigun. Mezkitan pare bat ikusi ondoren, begibakarreko, tartalo antzeko izaki batzuk azaldu

ziren. Gu sentitzerakoan pareta begira jartzen ziren, gorputza osoa estaltzen zuten jantzi argiak erakutsiz. Emakumeak ziren. Kale eta monumentuak ahaztuz, galdezka hasi ginen gidari antipatikoari eta pixkanaka, horrelako informazioa atera genion: hamalau urtekin espetxe-soineko hura jartzen zieten neskei, beraien begi bat eta gorputzua osoa, (ezta esku bat ere mostratzen zuten) itsutasunera kondentatzen, azkenean, betokerrak gelditzen zirelarik; etxean bakarrik kentzen zuten arropa hura, nahiz eta seme koskorren aurrean, itzali behar berriz. Bestalde, emakume guztiek tutore bat eduki behar zuten bizitza guztirako, aita hasteko, edo osaba, anaia, senarra gero, senarraren anaia, semea... Beraien aitak eskontza konpontzen zuen beraz, neskek ez zuten senargaia ezagutzen eskundu arte, eta hori, hamasei, hamazazpi urtekin gertatzen da gaur egun arte. Dena den, ondo bizi zirela esaten zigun gizon hark, Ghardaia herri aberatsa zela, baina, zertarako nahi zuten dirua emakume haiek? Etxeetan telebistako antenak ikusten ziren, parabolikoa eta guzti, pelikuletako, dokumentalako beste bizimodu, mende-baldekoa, ikusteko aukera zuten egunero; orduan, bere kabuz onartzen dituzte horrelako ohiturak? edo, ezin zuten hautatu? agian beraien sinesmenak erabat barneratuak zituzten eta ez zuten nahi beste biderik onartu... Kontu hauetan geunden, gurekin zetorren neska bat mezkita minaretearen eskaileratik behera erori zenean. Gure taldeko bi gizonak, besoak ipurdi azpitik pasa eta neskak besoak mutilen lepoetatik pasatzen zituela, aulkian eramango balute bezala, hartu zuten. Ghardaiako gidariak hori ikustean, eskuak burura eraman zituen eta ohiuka hasi zen, handik pasatzen ziren haurtxo harrituak uxatu nahian, eta mutilek zauritua utzi izan behar zuten lurrean, iskanbilatsua egiten baitzitzairen kontaktu hestuegi hura. Handik gutxira, alkatea ageri zitzaigun eskandaluz jabetuta. Neska autobuseraino zihoazten kaleetatik jetsi zen paretetan sostengatuz eta lagun baten laguntzarekin. Pilatu zen jende guztia sakabanatuerazten saiatzen ziren. Zirkoan egongo balira bezala, somatzen gintuzten.

Azkenik, alfombrak, ontzi tipiko pare bat eta bihotza kizkurtua eramaten genituen autobus kiskalduan. Argel-en sartu ginen basamortua utzi genuenean. Han integrismoaren aldeko manifestapen bat zegoen eskatuz, adibidez, emakume guztiek nahi ta nahiez beloa eraman zezatela. Ghardaia ikusi ondoren, gogorra egin zitzaigun hori.

Jacques Berque, arabista frantsesak, mendealdeko eraginetik defendatzeko, islamismoa politizatu dela dio, horrela, legeetatik 80% Koran-etik datoz; legeok emakumeei egiten diete kalte, batez ere. Ikertzaile honek esaten duenez, integrismoa islam-aren desbideraketa huts da, Koran-en agertzen den hitza gaizki interpretatzea.

Eta guk, mendealdekoak, zer egin dezakegu begibakarreko emakumeak ikustean edo "liberalak" diren neskak iraintzen edo kolpatzen dituztenean unibertsitatara joateagatik? Gure tradizioetatik horrelako lastrak kentzen saiatzearekin, aski daukagula pentsatzen dut, hango hemakumeak oroimenetik ezin urrundu.

